



## ARTEAREN HISTORIA

Proposatzen zaizkizun galdera-sorta hauetatik, bat aukeratu eta erantzun. Galdera bakoitzaren gehieneko balioa 2,5 puntukoa izango da.

### 1. GALDERA-SORTA

#### 1. Eskultura greko klasikoa:

- Eskultura-klasizismoaren ezaugarri definitzaileak.
- Greziako klasizismoaren eskultore adierazgarri bati buruz mintzatu (Fidias, Polikleto edo Praxiteles).

#### 2. Arkitektura gotikoa:

- Arkitektura gotikoaren ezaugarri definitzaileak eta berrikuntzak katedralen bidez: eraikitze sistema, oinplanoa, aurretiko bista, mintzaira formala, sinbolismoa.
- Aipa itzazu arkitektura gotikoaren adibide adierazgarri batzuk.

#### 3. Errenazimentuko arkitektura espainiarra. “El Escorial”:

- Egin lanaren analisia (testuinguru historiko kulturala, motak, oinplanoa, espazioa, mintzaira formala eta estetikoak, sinbolismoa...), eta esan zein diren errenazimentuko arkitekturaren eta herreriaren estiloaren ezaugarriak.

#### 4. Pintura inpresionista: Monet-en “Rouengo katedrala”:

- Egin lanaren analisia eta azaldu haren bidez pintura inpresionistaren berrikuntza teknikoak, gaiaren aldekoak eta formalak.

### 2. GALDERA-SORTA

#### 1. Arkitektura erromatarra:

- Ezaugarri definitzaileak eta berrikuntza nagusiak.
- Azaldu eskematikoki arte erromatarrek ekarritako tipologia arkitektoniko nagusiak.

#### 2. Pintura erromanikoa: Leongo San Isidoroko “Artzainen deikundea”:

- Egin lanaren analisia (testuinguru historiko-kulturala, gaia, zertarakoa eta formaren analisia), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren pintura erromanikoaren ezaugarri berezkoak.

#### 3. Errenazimentuko arkitektura: Bramanteren “San Pietro in Montorio”:

- Egin lanaren analisia (testuinguru historiko kulturala, motak, oinplanoa, espazioa, mintzaira formala eta estetikoak, sinbolismoa...), eta esan zein diren Klasizismoaren ezaugarri berezkoak errenazimentuko arkitekturaren.

#### 4. Francisco Goya:

- Goyaren pinturaren ezaugarriak eta berrikuntzak: gaiaren aldekoak, teknikoak eta formalak eta pintura modernoari egindako ekarpenak.
- Aipa itzazu Goyaren iraultza piktoriko horren adierazgarriak diren genero eta lan batzuk.

